

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

25/2020 Mozioa, ekainaren 4koa, enpleguari, jarduera ekonomikoari eta ehun produktiboari eusteko eta haien suntsipena geldiarazteko

Arabako Batzar Nagusi hauetako Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren II. Batzordeak, 2020ko ekainaren 4an egindako bilkuran, honako mozioa onetsi zuen:

25/2020 Mozioa, ekainaren 4koa, enpleguari, jarduera ekonomikoari eta ehun produktiboari eusteko eta haien suntsipena geldiarazteko.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote lidergoaz jokatu dezala COVID-19k eragindako krisi ekonomiko eta soziala kudeatzen, Arabako Lurralde Historikoko ehun produktiboa eta jarduera ekonomikoa defendatuz, eta lurraldeko eragileekin koordinatu dezala Arabako jarduera ekonomikoaren jarraipena eta beharizanen identifikazioa, eta sustatu dezala instituzio guztietan neurri zehatzak hartzea.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote abian jar dezala neurrien multzo bat - gainerako instituzioek hartutako neurrien osagarri izango direnak, haiekin koordinatuta eta gure eskumen-esparrutik atera gabe- hala pandemiari aurre egiteko hartu diren konfinamendu-neurriek bereziki kaltetutako sektoreak babestuko dituen plan bat osatuz: langabezian edo EEABEen eraginpean dauden langileak, enpresa txiki eta ertainak eta autonomoak, denda txikiak, ostalaritza, turismoaren sektorea, lehen sektorea eta kulturgintza.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 4a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA